

D.A.D. - TXANGOAK

GR38-1 Oion – Guardia (2015-03-28)

Otsaileko txangoa bertan behera utzi behar izan genuen, eguraldi kaskarra medio. Martxoan bide beretik gindoazenez, ibilbidea aldatzea erabaki genuen. Bezperan, azkeneko orduan, Gipuzkoako lurraldetik urrundu eta Errioxako lurraldetara abiatzea erabaki genuen.

Errepidean 2 orduko bidea genuenez, goiz abiatu ginen. 7:30tako martxan ginen. Autobusa ia betea.

Oion zen gure abiapuntua, EHko mugan, Logroñotik kilometro gutxitara. Eguraldia lagun izan genuen (eguzkia eta beroa).

Hasierako 3 km.ak errepidez dira, mahastietara doan errepidez. Gero ibilbide laua, beti mahastien artean. 19,7 km guztira. 5 ordu abiadura normalean. Aldaparik gabeko bidea. Erraza, beraz.

Ebro ibaia ikuitzen da Assa herrixkan. Egun horretan, urez gainezka zetorren, demasa.

El Campillon eguneko aldapa bakarra igo eta inguruko mendiak ikusteko parada izan genuen: hegoaldera, San Lorenzo eta Demandako mendiak, elurrez gainezka. Iparraldera, Kantauriko mendilerroa: Palomares, Leon Dormido, e.a.

Errioxako ardoaren erreinuan geunden. Marques de Riscalen mahastegien ondotik igarotzean, argazki bat ateratu genuen.



Ondoren, Guardiako aintzirak gozatzeko aukera probestu genuen. Pase garaia zenez, hegazti ugari zegoen. Leku polita da hau, berezia.



14:10ean bukatu zen ibiladia, berandu xamar Guardia hiriri bisita turistikoa egiteko. Polita izan behar du. Beste baterako utzi genuen. Hori eta bodega bati bisita egiteko konpromezua.

Autobusak Bastidara eraman gintuen, Jatorrena jatetxera: babarrun zuriak, arkume sahieskak, mamia ta kafea. Ederra bazkaria. Bapo bazkaldu ondoren, Bastidari bueltatxo bat eman genion bazkaria jeisteko.


Egun osoan eguzkia lagun izan dugu. Gipuzkoan, esan zigutenez, euria beti bezala.

Ibilbidearen nondik norakoa ikusi nahi izanez geto, sakatu ondorengo estekan:

<http://ibilbideak.euskadi.net/ibilbideak/view.do?id=35819>

Hurrengo txangoa apirilaren 25ean izango da eta izena emateko epea apirilaren 13an irekiko da.

D.A.D. - TXANGOAK



D.A.D. - TXANGOAK

Hora Inicio: 03/28/2015 09:48 Hora Fin: 03/28/2015 14:08 Distancia recorrida: 19,7 km Altura Mínima: 380 m Altura Máxima: 612m -----
. Oion (EHko muga, Logroñotik 4 km.ra. . Aurreneko 3 km.ak errepidez dira. Beraz, berebilez egin daitezke. Busak buelta emateko lekua badago errepidearen bukaeran. . Gero ibilbide laua, mahastien artean. 19,7 km. 5 ordu abiadura normalean. . Ebro ibaia ikuitzen dugu Assa herrixkan. Guk egin genuenean, urez gainezka zetorren ibaia. Demasa. . Assa herrixka pasa ostean, eguneko aldapa bakarra igo eta inguruko mendiak ikusteko parada dugu: hegoaldera, San Lorenzo eta Demandako mendiak, elurrez gainezka. Iparraldera, kantabriako mendilerroa: Palomares, Leon Dormido, e.a. . Errioxako ardoaren erreinuan gaude. Marques de Riscako mahastegien ondotik igarotzen gara. . Bukaera aldera, Guardiako aintzirak ditugu gozatzeko. Hegazti asko dago pase garaian. Leku polita da hau, berezia. . Guardian bazkaltzeko leku ugari daude, Aste bukaerako menuak garesti xamarak izan arren. Bazkal ondoren, Guardia bisitatzea merezi du.